


# HEZKUNTZA PLATAFORMEN ASANBLADA

OTSAILAK 7 · LARUNBATA · 10:30  
LA BOLSA · (BILBO)



hezkuntza plataformen  
**TOPAGUNEA**

## 1.go BLOKEA: PARTE HARTZEA

### 1.0 DEFINIZIOA – HELBURUAK - XEDEA – DINAMIKA PROPOSAMENA

### 1.1 NEURRIA 1 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

1.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

1.1.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA

1.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

1.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK

1.1.e NOREN ARDURA DA?

### 1.2 NEURRIA 2 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

1.2.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

1.2.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA

1.2.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

1.2.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK

1.2.e NOREN ARDURA DA?

### 1.3 NEURRIA 3 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

1.3.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

1.3.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA

1.3.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

1.3.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK

1.3.e NOREN ARDURA DA?

### 1.4 NEURRIA 4 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

1.4.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

1.4.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA

- 1.4.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 1.4.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 1.4.e NOREN ARDURA DA?

## 1.5 NEURRIA 5 – PARTE HARTZEA HERRIAN

- 1.5a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 1.5.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA
- 1.5.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 1.5.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 1.5.e NOREN ARDURA DA?

## 2. BLOKEA: PEDAGOGIA ETA CURRICULUMA

- 2.0 DEFINIZIOA – HELBURUAK - XEDEA – DINAMIKA PROPOSAMENA

## 2.1 NEURRIA 6 – INGURUNEren BANAKETA

- 2.1a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 2.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK
- 2.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 2.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 2.1.e NOREN ARDURA DA?

## 2.2 NEURRIA 7 – 'ERLIJIOA' ETA 'BALIO ZIBIKO ETA SOZIALAK'

- 2.2a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 2.2.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK
- 2.2.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 2.2.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 2.2.e NOREN ARDURA DA?

## 2.3 NEURRIA 8– MATERIAL PEDAGOGIKOA (TESTULIBURUAK)

- 2.3a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 2.3.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK
- 2.3.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 2.3.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 2.3.e NOREN ARDURA DA?

### 3. BLOKEA: EBALUAZIOAK

#### 3.0 DEFINIZIOA – HELBURUAK – XEDEA – DINAMIKA PROPOSAMENA

#### 3.1 NEURRIA 9– 3. MAILAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

- 3.1a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 3.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK
- 3.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 3.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 3.1.e NOREN ARDURA DA?

### 4. BLOKEA: ARLO ADMINISTRATIBOA

#### 4.1 NEURRIA 10 – DAE

- 4.1a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?
- 4.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK
- 4.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?
- 4.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK
- 4.1.e NOREN ARDURA DA?

hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com

[www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com](http://www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com)

## 1.0 PARTE HARTZEA

### DEFINIZIOA

Partaidetza kolektiboan oinarritutako parte hartze demokratiko erreal, parekide, eraginkor eta lotesle bat dugu helburu. Herritarra, eremu guztietara zabalik, hezkuntza gaiak eta eskola bizitzako plangintza eta curriculum landuko duen parte hartze ereduaren bidea egin nahi dugu, non hezkuntza komunitateko estamentu guztien partaidetza aktiboa bultzatuko dugun horien artean sortu litezkeen botere harremanekin errotik bukatuz.

### HELBURUAK - XEDEA

Hezkuntza Batzorde Zabala eratu behar da herriz-herri. Bertan, hezigune desberdinetako parte-hartze organoak, udala, hezkuntza eragileak, adituak,... egongo lirатеke. Eta bertan lantzen diren helburu eta edukiak lotesleak lirатеke. Udal eta heziguneeek autonomia handiagoa izan behar dute. Herri Curriculum garatzea izango du helburu besteak beste batzorde honek.

Ikasturte honetarako zeregina hezigune bakoitzean dagoen egoetatik abiatuz goian aipaturiko helburua lortze aldera erritmo desberdinetan bada ere, erabakiguneeak definitu eta eraiki behar dira. Herri mailan lortzerik ez bada, heziguneean, gutxienean hori bermatzeko bidea jorratuko da.

### DINAMIKA PROPOSAMENA

Hezigune eta herri bakoitzean egoera eta abiapuntu desberdinak ditugunez aurrean duzuen, hezigune bakoitzak bere egoeraren azterketa egin ostean, egingarria dena aplikatzeko ideiarekin sortuak dira.

Egoerak hala emanez gero herri mailako parte-hartze eremura hurbildu ahal direnentzako da azkenengo aurkezturikoa.

## 1.1 NEURRIA 1 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

### 1.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

OOGren jarraipena sinatu da. Beraz, printzipioz LOMCEk ezarritakoak eragin bortitzik ez du hezigunetako egunerokotasunean.

**“Parte-hartze krisi batean gaude, dauden organoak ez dute sustatzen definizioz parte-hartze demokratiko eta loteslea”.**

Lan pedagogiko eta esfortzu handia suposatuko duela aitortuta ere, honetan hasi beharra daukagu.

Parte hartzaileak (irakasle, familia, ikasle, udaleko ordezkari) OOGra boto partikularrarekin daude legez, eta ez dute beharrik beraien ordezkari izaera era demokratikoz betetzera. Hau da, eskolaren izaera eta borondatearen mende dago parte-hartze demokratikoa, eta ideia hau ezarri behar dugu heziguneetan.

### 1.1.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA:

Beraz, ikasturte honetarako zeregina hezigune bakoitzean dagoen egoeratik abiatuz goian aipaturiko helburua lortze aldera erritmo desberdinetan bada ere, erabakiguneak definitu eta eraiki behar dira.

### 1.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ikasturtean zehar lanketa egiteko bitartekariak eta eremuak landu daitezke. OOG-a berritzen denean lanketa osoa egina egon dadin eta benetan goian jasotako helburua beteko dela ziurtatuko da akordioak eginez.

### 1.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

### 1.1.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Zuzendaritza: Zikloetan, eta klaustroan ordezkariaren eta parte hartzearen inguruko hausnarketa egin.	Familien ordezkariak: Barne antolaketan parte hartze ahalik eta zabalena bermatu.	Sindikatuak eta HPTk informazioa zabaldu eta ekimenaren berri emango dute.
Klaustroa: Akordioa egin OOGra doazen irakasle eta zuzendariak Klaustroaren eta irakas komunitatean adosturiko erabaki eta iritzirik defendatuko dituztela jasotzen duena.	OOGko ordezkariak adosturikoa eramango dutela akordioa batean jaso.	Udalak parte hartze demokratiko eta loteslea ahalbidetuko duen lanketa egingo du herri mailan.

## 1.2 NEURRIA 2 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

### 1.2.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

OOGren jarraipena sinatu da. Beraz, printzipioz LOMCEk ezarritakoak eragin bortitzik ez du hezigunetako egunerokotasunean.

### 1.2.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA:

Hezigune bakoitzean parte hartze eredu modura beharrezkoa ikusi da, bai urteko plangintzan eta bai erabakigarriak diren kontuetan heziguneko komunitate osoak parte hartu behar duela hasieratik, bai diseinuan eta bai aplikazioan.

Eta hau lortze aldera egitura eta formulak adostu behar dira.

### 1.2.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ikasturtean zehar edozein momentutan.

### 1.2.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

### 1.2.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Zuzendaritza: Plangintzan eta Curriculum gaietan arituko den lan taldea eratu: ikasle, familia, irakasle, eragile, ...  Antolakuntzan beharrezkoak diren moldaketak egin: ordutegiak, bozketak, harremanak...	Familen artean gai hauetan sentsibiltatea izan dezakeen ordezkaritza zabal eta anitza identifikatu eta lotu.	HPTk informazioa zabaldu eta ekimenaren berri emango dute.  Parte-hartze formazioa ezartzea bideratuko duten eskaerak egin. Berritzegunean, Ikastolen elkartean...

### 1.3 NEURRIA 3 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

#### 1.3.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

LOMCEk gai honen inguruan ez dakar ezer.

#### 1.3.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA:

Ona litzateke honetarako parte-hartze eredu desberdinen berri izatea. Esperientzia positibo eta onak web gunean eskegi edo beste formularen bat bilatu behar dugu.

#### 1.3.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ikasturtean zehar edozein momentutan.

#### 1.3.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

#### 1.3.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Zuzendaritza: Lan talde zabal eta anitza eratzeko baldintza eta bermeak eman.  Irakasle, klaustro, lan talde, ikasle ordezkari e.a. landuriko parte hartze eredu edo formula diseinatuko dute ondoren erakusgai eredu bezala webgunean eskaini ahal izateko.	Harremanak lotuko dituzte hezkuntza komunitate osoarekin.  Parte hartzea bermatuko dute gune desberdinetan parte hartuz.	Sindikatu eta HPTk. Webgunearen diseinua eta informazioa zabalduko dute.



## 1.4 NEURRIA 4 – PARTE HARTZEA HEZIGUNEAN

### 1.4.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

Printzipioz LOMCEk ezarritakoak eragin bortitzik ez du hezigunetako egunerokotasunean. Ikastoletako erabakigunetan ez luke eraginik izango.

Parte hartze eredu bat badago, ikasleak, geletako guraso ordezkariak, artezkaritza...Positiboki baloraturik ere, hauen ezarpen maila desberdina da ikastola bakoitzean. Batzuetan parte-hartze demokratikoa goi maila batean dago. Gai esanguratsuez hitz egin, iritziak eta informazioa konpartitzeko Asanbladak deitzeko aukera jasoa dago. Baina...

### 1.4.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA:

“Parte hartze demokratiko erreal eta eraginkorraren bidean lan handia dago egiteko, nahiz eta egoera desberdinetatik abiatu”.

### 1.4.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ikasturtean zehar edozein momentutan.

### 1.4.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

### 1.4.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Artezkaritza, zuzendaritza: parte hartze eremuak definitu eta helburuak aztertu.	Parte hartze aktiboa izango duten formulak landu.	Helburua lortze aldera beharrezkoa den informazio eta koordinazioaz landu lan hau elikatuz.
Partehartze demokratiko eta loteslea bermatua dela ziurtatzeko jarraibideak ezarri.	Ordezkariek partehartze eremuetan aktiboki parte hartu.	

## 1.5 NEURRIA 5 – PARTE HARTZEA HERRIAN

### 1.5.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

LOMCEk ez du koordinazio eta elkarlan esparru hau aurreikusten

### 1.5.b PROPOSATZEN DEN NEURRIA:

Hezkuntza Batzorde Zabala / Hezkuntza Bilgunea... eratu behar dugu herriz -herri. Bertan, hezigune desberdinetako partehartze organoak, udala, hezkuntza eragileak, adituak,... egongo lirateke. Eta bertan lantzen diren helburu eta edukiak lotesleak lirateke. Udal eta heziguneeek autonomia handiagoa izan behar dute. Herri Curriculuma garatzea izango du helburu besteak beste batzorde honek.

### 1.5.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ikasturtean zehar edozein momentutan.

### 1.5.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

### 1.5.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Koordinaziorako eta elkarlanerako ordezkariak izendatu hezigune bakoitzean.	Hezkuntza batzordean parte aktiboa izango duen ordezkari edo ordezkariak izendatu.	Udala, sindikatu eta eragileek helburua lortzeko ahalegin bateratua egin.  Gaiaren inguruko formazioa eragile eta partehartzaile guztiei eman.

## 2.0 PEDAGOGIA ETA CURRICULUMA

### DEFINIZIOA

Pertsonaren garapen integrala bermatzen duen pedagogia dugu helburu. Honako pedagogia ildoak jarraituz: Pedagogia pertsonalizatua eta ikasketa erritmo ezberdinak errespetatzen duena, ikasketa esanguratsua eta inguruarekin harreman zuzena duena. Pedagogia ikertzailea eta zientifikoa garatzen duena. Heziketa emozionala eta afektiboa kontuan hartzen duena. Hezkidetzeta eta berdintasunean oinarritua. Konpententzien garapena lantzen duena. Ikasle euskaldun eleanitzak hezten duena eta aniztasunari erantzun inklusiboa ematen diona.

Euskal Curriculumua oinarri dituzten heziguneak eraikitzea dugu helburu. *“Heziguneak inguruarekin harreman zuzena izan behar du. Inguruia integratzeaz gain, inguruan eragin behar du, eraldaketa gauzatu nahi baditu. Beraz, Euskal Curriculumua eta herriz-herriko Herri Curriculumak garatzea pedagogiko koherentea da, eta baliagarria herritarren kohesioa lortzeko”* (Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa - 2006)

### HELBURUAK - XEDEA

Hezkuntza Batzordeak eratu behar dira hezigunez-hezigune. Bertan, hezkuntza komunitateko kide ezberdinak parte hartuko lukete. Eta bertan lantzen diren helburu eta edukiak lotesleak lirateke. Zein pedagogia ildo jorratuko dituzten definituko lituzteke eta curriculumari dagokionez, herri curriculumua garatzeko herriko beste heziguneekin, udalarekin eta eragile ezberdinekin elkarlanean hasteko urratsak emango lituzkete.

Ikasturte honetarako zeregina hezigune bakoitzean dagoen egoeratik abiatuz goian aipaturiko helburua lortze aldera erritmo desberdinetan bada ere, erabakiguneak definitu eta eraiki behar dira.

### DINAMIKA PROPOSAMENA

Hezigune eta herri bakoitzean egoera eta abiapuntu desberdinak ditugunez aurrean duzuen, hezigune bakoitzak bere egoeraren azterketa egin ostean, egingarria dena aplikatzeko ideiarekin sortuak dira.

## 2.1 NEURRIA 6 – INGURUNEren BANAKETA

### 2.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

Lehen hezkuntzako 1 – 3 – 5. mailetan ezarri da eta ingurunearen ezaguera bitan banatzen da: “Gizarte Zientziak” eta “Natur Zientziak” arloak izanik. Modu honetan ere ebaluatu beharko da.

- Kalifikazioak. LOMCEren arabera kalifikatu beharko dira eta nota bereizituekin.
- Aktetan era berdinean agertuko dira.

### 2.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK:

- “Ingurune” bezala ebaluatu eta nota bikoiztu.
  - Horrela benetan irakatsi den bezala ebaluatuko da, ebaluazioari dagokion garrantzia eta koherentzia emanaz.
- Bikain jartzea aktetan inposatutako bi arloetan planto gisara.
  - Ikasturte honetarako inkoherentzia planteatu da, gauza bat eman eta beste bat ebaluatu. Ondorioz, eta inkoherentzia ikusita eta ikasleak ez kaltetzeko asmoz baina bai agerian jartzeko Hezkuntza Sailatik eskatu dena, aktetan bikain jartzea proposatzen da. Honek, gainera, bekak eskatzeko ez du inolako kalterik ekarriko.
- Proiektuekin jarraitu.
  - Pedagogiaren planteamendua proiektuetan lantzea da, eta ondorioz garai bateko irakasgaien planteamendu itxia pedagogikoki atzerakoia izateaz gain, eraginkorra ere ez denez, orain arteko planteamendurekin jarraitzea proposatzen da.
- Familiek ere notak jasotzean oharra idatz dezakete testu honekin:
  - *“Ikastetxe honetan LOMCE inposatu zaigu. Hala ere, bertako parte hartze demokratikoa oinarri eta komunitateak hala erabakita, LOMCEren kontra agertzen garela adierazten dugu. Hau horrela, inposatzen diguten “Ingurune” ikasgaiaren banaketaren aurrean ondorengoa diogu: guk gure hezkuntza proiektuaren mesedetan “Ingurune” irakasgaia ematen jarraitu dugu eta hala ebaluatu dugu. Dena den, legeak hala inposatuta, aktetan zatitutako nota gisa agertuko da, nahiz eta horrelakorik egin ez izan.”*
  - Honela, familien kezkek jasotzeaz gain, tresna bilaka daiteke LOMCEren ezarpenari aurre egiteko era praktikoa batean.
- Honetaz gain ezinbestekoa da sentsibilizazioa kanpainak, proposamenak eta alternatibak ongi ulertzeko. Horrela izanik, hezkuntza komunitate osoa bertan hartzeaz gain, partaide senti daitezten.
  - Gelako batzarrak deitu informazioa eman, zabaldu eta inplikazioa bilatuz. Bereziki 3. Eta 6.mailan.
  - Euskarriak atera jendea ikus dezan (bide ezberdinak uztartuz, bideoak,...)

- Gure inguru hurbiletik eta ikaskuntza esanguratsuetatik abiatzen den hezkuntza sistema nahi dugu, gure ohiturak, kultura,... gain hartzen duena.

### 2.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ahal bezain laster eman beharreko urratsa da, izan ere, noten buletina osatzerako erabakiak hartuta egon behar du.

### 2.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Barne boletinetan ez da aurreikusten.

Aktaten nota bikoiztuko balitz, arazorik ez. Egokitzapen curricularra egiterakoan banaketa egin behar da beraz ikasleentzako ondorioak izan ditzake.

Bikoiztuko balitz neurria, aprobatur gero, arazorik ez. Suspendituko balitz, arazoa dago ze bikoiztuiko litzateke ere. Adi egon beharko gara kasu konkretu hauetan.

### 2.1.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Irakasleen klaustroan gaia landu eta ikastetxe osoaren babesa lortzen saiatuko da.	Familiak berea egin dezakete edozein kasutan	Sindikatuak eta hezkuntza komunitateak hau babestu eta bide berriak hedatzen zabalitzen lagundu, ikastetxe ezberdinetara zabalduz.
Eskolako asanbladak burutu ikastetxeko neurriak eta hezkuntza proiektua azalduz.	Notetan familiei idazteko aukera eman.	

## 2.2 NEURRIA 7 – ERLIJOA ETA BALIO ZIBIKO ETA SOZIALAK

### 2.2.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

1-3-5. mailetan ezarrita dago ikasturte honetan.

Ebaluatu beharko dira eta ikaslearen espedientean agertuko da.

### 2.2.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK:

- Ikasle guztiei bikain jartzea.
  - Ikasturte honetarako inkoherentzi bat planteatu da, kurtso hasieran gaitegi bat eman, eta eskatzea hori ematea eta ebaluatzea. Balore sozialak ezin direla ebaluatu horrela pentsatzen badugu, balore sozialak ekintzaren bidez irakasten direla uste badugu, ikasle guztioi bikain jarriko zaie.
- Notak oreka bat mantentzea; hau da, balore sozialak eta erlijioko notak orekatzea, antzekoak izatea.
  - Horrela bi irakasgai hauen arteko desorekak saihestuko genituzke. Zentro bakoitzean ados daitezke 7-8 tartean jartzea nota guztiak, ikasleak ez kaltetzeko bekak eskatzeko unean adibidez, edota horien artean eta espedientean ezberdintasunak ez sortarazteko.
- Balore sozialak ezin dira ebaluatu. Nahiz eta irakasgai honetan ez matrikulatu balore sozialak zeharka ere curriculumean landu beharko lirateke, eta horrela eginez, eta ez direlako ezagutza hutsak
  - Ez ebaluatzea proposatzen da.

### 2.2.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Eztabaida edozein momentuan eman daiteke eta notetan txertatu (familientzat idazteko tartearekin batera).

### 2.2.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

1.go eta 2. neurrirako ez da aurreikusten.

3. neurrirako aurreikusi daitezke.

### 2.2.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Ikastetxean akordio batera ailegatzea eta eztabaida ematea.	Notetan tarte bat utzi gurasoak beraien aipamenak jar ditzaten.  Aipamen asko batuz gero fotokopiatu eta delegaritzara bidali.	Sindikatuak ekimena zabaldu eta halako dinamikak aurrera ateratzen dituzten ikastetxeak babestu.

## 2.1 NEURRIA 8 – MATERIAL PEDAGOGIKOA (TESTULIBURUAK)

### 2.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

Urtero bezala hurrengo ikasturteko testuliburuak aukeratu beharko dira. Hemen aukera paregabea dugu guk gure bitarteko propioak erabiltzeko, EHN sortuak EHko ikuspegiarekin. Momentuz ez dago LOMCEren baitako aldaketarik.

### 2.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK:

- Ez dugu LOMCE aplikatzen duen testulibururen arabera funtzionatuko.
- Euskal Herritik eta Euskal Herrirako ekoiztako testuliburuak erabiliko ditugu.

### 2.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Hurrengo ikasturteko testuliburuak aukeraketa egiten denean.

### 2.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ez da aurreikusten.

### 2.1.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Irakasleen klaustroan gaia landu eta ikastetxe osoaren babesa lortzen saiatuko da.  Eskolako asanbladak burutu ikastetxeko neurriak eta hezkuntza proiektua azalduz.	Familiak testuliburu konkretu batzuk izateko eskaera gauzatu beharko dute	Sindikatuak eta hezkuntza komunitateak hau babestu eta bide berriak hedatzen zabalitzen lagundu, ikastetxe ezberdinetara zabalduz.

## 3.0 EBALUAZIOAK

### DEFINIZIOA

Ebaluazioak ikaslearen garapen osoa kontutan hartuko duen etengabeko prozesua izan behar du, hezitzailea eta erregulatzaileria, norberaren garapen pertsonala ardatz duena.

### HELBURUAK - XEDEA

Hezkuntza Batzordeak eratu behar dira hezigunez-hezigue. Bertan, hezkuntza komunitateko kide ezberdinak parte hartuko lukete. Eta bertan lantzen diren helburu eta edukiak lotesleak lirateke.

Zein ebaluazio ildo jorratuko dituzten definitu eta ezarpenari aurre egiteko neurriak adostuko lituzkete. Adostutako neurri guztiak erabakitzeke organo guztietatik pasako lirateke.

Ikasturte honetarako zeregina hezigune bakoitzean dagoen egoeratik abiatuz goian aipaturiko helburua lortze aldera erritmo desberdinetan bada ere, erabakiguneak definitu.

Gure helburua ebaluazio sistema propioa izatea da, guk geuk hemen erabakia.

### DINAMIKA PROPOSAMENA

LOMCEk ezartzen duen ebaluazio oinarriak aztertzeke, kontuan izan daitezkeen irizpideak:

- Ebaluazioa ikasleriaren hautatze-lasterketa bat bezala planteatzen da eta ez hobekuntza eta diagnostikorako tresna bezala.
- Eskolen arteko ranking publikoa ahalbidetzen du, haien arteko elkarlana sustatu beharrean lehia elikatuz.
- Oroimenezko irakaskuntza ebaluatzen da azterketa bateko emaitzei garrantzia emanez, irakaskuntza esanguratsuen balioa eta ikasketa prozesua kontuan izan beharrean.
- Ikasleriaren aniztasuna kontuan hartu beharrean froga estandarizatuak planteatzen dituzte, ikasle hauen testuinguru sozial, ekonomiko, kultural... hurbila kontuan izan gabe.
- Ebaluazio – errebalida hauek Madriletik ezarrita datozenez, landu beharreko edukiak kontrolatu eta estatu osoan zehar uniformizazioa ezarritz, curriculum propioak garatzeko aukera oztopatzen saiatuko dira.



### 3.1 NEURRIA 9 – 3. MAILAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

#### 3.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

3. mailako ebaluazioa aurten hasiko dira. Baliteke pilotaje baten antzekoa izatea, Nafarroan hasi dira jada honekin. EAEn ere %6ak egindu du pilotajea. Beraiek aukeratutako edo nahi dituzten ikastetxe kopuru bat hartzea eta bertan errebaliden sistemari hasiera ematea izango da formula.

4. mailako diagnosi frogara ere izango da ikasturte honetan, orain arteko berdina.

#### 3.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK:

- Egun horretan jaiak antolatu ikastetxean edo irteerak.
  - Neurri hau erabilgarria da kanpotik badatoz ebaluazioa egitera. Eguna eskolak berak aukeratzeko bada, eta bertako irakasleekin, ez da bideragarria.
  - Notak oreka bat mantentzea; hau da, balore sozialak eta erlijioiko notak orekatzea, antzekoak izatea.
- Egun horretan ikaslea ez bidaltzea eskolara.
  - Neurri hau erabilgarria da kanpotik badatoz ebaluazioa egitera. Eguna eskolak berak aukeratzeko bada, eta bertako irakasleekin, ez da bideragarria.
- Hezkuntza Sailatik zentroari eskatzen bazaio pilotaje horretan parte hartzea, zuzendariak gaia eramatea Eskola Kontseilura eta guztion artean erabakia hartzea, eta erantzunaren argudiatze osoa bidaltzea Sailari.
- Azterketetan izenak jarri eta entregatu.
  - Neurri honekin familia bakoitzak adierazten du ebaluazio hori ez duela ontzat hartzen eta beraiantzako ikaslearen tutoreak egiten duen ebaluazio jarraia dela edozein erabakia hartzeko kontutan hartuko den iturri bakarra.
- Gurasoak beraien seme alaben ikasketak kaltetuko dituen errebaliden sistemari uko eginez dokumentua bete.
  - Neurri horrekin familiak erabaki sendoa hartzen du nahi duen hezkuntza sistemari begira. Nola nahi duen bere seme-alaba ebaluatua izatea, era jarraian beraren tutorearengandik. Eta kanpoko ebaluazioak ez direla egiten ikasleen mesederako, sistema lehiakorra ezartzeko baizik, eta irakaste prozesua lasterketa prozesua bilakatzeko asmoarekin.

#### 3.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Ahal bezain pronto.

#### 3.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Ikasleentzako, akademikoki ez dago inongo ondoriorik, ebaluazio diagnostikoak dira soilik. Ondorioak profesionalek azterketa egiteari zuzenean uko egiten badiote etor litezke. Trikimailuak baliatuz gero, ez legoke ondoriorik.

### 3.1.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Irakasle, ikasle eta gurasoena. Informazioa eman eta jasotzea. Babesa bilatu hezkuntza komunitatean eta herriko zein eskualdeko eskoletan.	Dinamika amankomuna osatu eta jantzi bakoitzak bere esparrutik ahal duena eginez.	Sindikatuak eta hezkuntza eragileak ekimena zabaldu eta halako dinamikak aurrera ateratzen dituzten ikastetxeak babestu.

## 4.0 ARLO ADMINISTRATIBOA

### 4.1 NEURRIA 10 – DAEk BETETZEAREN INGURUAN

#### 4.1.a ZER DAGO INDARREAN 2014-2015 IKASTURTEAN?

DAE-a urtero bezala bete eta itxi beharra dago. Aurten LOMCEren arabera egin beharko litzateke hau.

#### 4.1.b PROPOSATZEN DIREN NEURRIAK:

- DAE programa informatikoa ez itxi.
- ORG-aren babesa lortu eta Hezkuntza Sailera bidali.
- Akta ofizialak ez sinatzea eta dokumentu alternatiboak erabiltzea ikasleen ikasketa prozesua islatzeko.
- Hezkuntza sailari hartutako erabakien inguruko babesa eskatu.

#### 4.1.c NOIZ EGIN BEHAR DA?

Irailean, hiruhilabete amaiera guztietan eta ekainean.

#### 4.1.d BALIZKO ONDORIO LEGALAK:

Planteatu diren neurrien artean ondorio administratiboa izan dezakeen bakarra dela aurreikusten dugu. Batez ere ondorio administratibo horiek irakaslegoarengan, maila pertsonalean, eragina izan dezake.

#### 4.4.e NOREN ARDURA DA?

Hezkuntzako langileak	Familiak	Jendarte eragileak
Irakasleen klaustroan gaia landu eta ikastetxe osoaren babesa lortzen saiatuko da.  Edozein kasuan, erabakia norbanakoa da, legalki.		

**HEZKUNTZA SISTEMA**

**PROPIOA ERAIKIZ,**

**LOMCERI AURRE EGIN!**